

**2022KO URRIAREN 25EAN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2022ko urriaren 25ean arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO IRAILAREN 20TIK 2022KO URRIAREN 18RA (2022/255 - 2022/277).

Alkatetzak 2022ko irailaren 20tik 2022ko urriaren 18ra bitartean (2022/255-2022/277) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2022KO IRURAKO UDALAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN %1,5EKO ORDAINSARI-IGOERAREN ONARPENA.

Alkateak hartu du hitza eta gai hau diktaminatu gabe dagoenez, aldez aurretik gaia tratatu edo ez

bozketa egin da eta aho batez gaia tratatzea erabaki da.

Ondoren , Alkateak Udabaltzari eginiko proposamena irakurri du:

UDALBATZARI PROPOSAMENA

2022ko Irurako udalaren zerbitzura dauden langileen %1,5eko ordainsari-igoeraren proposamena.

Urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuak sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 1,5eko igoera gehigarria onartzen du. Igoera hori azarotik aurrera gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtarriletik urrira bitarteko hilabeteei dagokien igoera.

Horrela, aztergai dugun kasuari jarraiki, urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuak toki-erakundeek 2022ko abenduaren 31 baino lehen eta, nolana ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen ordainketa zehaztu ahal izateko jarraitu beharreko arau espezifikoak ezartzen ditu.

Gauzak horrela, toki-erakundeek ordainsari-igoera aplikatu ahal izateko egin beharko dituzten aurrekontu-jarduerak arautzen dira:

— Alde batetik, erakundeak kreditu-aldaketak izapidetzen baditu, hau da, kreditu-gehigarriak edo aparteko kredituak izapidetzen baditu 2022ko ekitaldi honetan, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 177.6 artikulua aplikatu ahal izango da, hau da, arrazoi horrengatik egindako aldaketak berehala betearaztekoak izango dira.

Era berean, artikulua honetan araututako ordainsari-igoera finantzatzeko onartutako aparteko kreditua edo kreditu-gehigarria hurrengo ekitaldiko gastu-aurrekontuetako kredituetan sartu ahal izango da, eta 2023ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko da ordainketa, TLRHLren 182. artikulua arabera.

— Bestalde, salbuespen gisa, arestian aipatutako kreditu-aldaketak finantzatzeko baliabide nahikorik ez duten toki-erakundeek mailegu bat formalizatu ahal izango dute, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtzarekin behar den zenbatekoan.

Azpinarratu behar da mailegu horren zenbatekoak ezin izango duela gainditu gastuen egoeraren 1. kapituluaren aitortutako obligazio garbier % 1,5, 2021eko aurrekontuaren likidazioaren arabera, eta ordainketa 2023ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko da.

Azken batean, langile publikoen ordainsarien % 1,5eko konpentsazioa onartu da 2022. urterako. Soldata-igoera horrek atzeraeragina du, eta uneko ekitaldian finkatuko da. Igoera hori aurtengo urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen ordainsari publikoen % 2ko gorakadari gehitu behar zaio.

ERABAKITZE PROPOSAMENA

LEHENA.-Irurako langileen ordainsari-igoera %1,5eko onartzea 2022ko aurrekontuaren kargura urtarrilaren 1eko atzeraeraginekin.

BIGARRENA.- Ordainsari-igoera finantzatzeko 15.000 € Kreditu aldaketa onartzea.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

3.- 2022-KALD-00012 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

Alkateak hartu du hitza eta gai hau diktaminatu gabe dagoenez, aldez aurretik gaia tratatu edo ez bozketa egin da eta aho batez gaia tratatzea erabaki da.

Proposamena azaldu du Alkateak.

2022-KALD-00012-00
Kreditu gehigarriak

KREDITU ALDAKETAK

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.120.920.00.00 2022	Oinarrizko soldata. Idazkaritza. F	144.100,00	15.000,00	159.100,00
GUZTIRA		144.100,00	15.000,00	159.100,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	REMANTE DE TESORERIA	15.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			15.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

4.- EH BILDU ETA EAJ-K ADOSTUTAKO MOZIOA: “AZAROAREN 25ERAKO ADIERAZPENA”.

Noelia Lataburuk zinegotziak mozioa irakurri du:

AZAROAREN 25ERAKO EUDELEN ADIERAZPEN EREDUA, 2022KO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA DELA ETA



Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan

Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabileran, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufritzen ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamatutako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «*Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak*», espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta nesKentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Esparru horretan, Irurako Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

1. Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.
2. Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriari aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.
3. Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.
4. Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrianak kontuan har daitezten.
5. [Berdinsarea](#) tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta nesKentzat.
6. Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko.

BOZKETA.- AHO BATEZ ONARTU DA PROPOSAMENA.

5.- GALDE-ERREGUAK.

EAJko bozeramaileak adierazi du, Alkate Dekretu batean akats bat dagoela datarekin, 2022/268 Irurako Ikastolari 0-2 haurren gelarako ingurukoa, Udalbatzako datan eta dirulaguntza kantitatean akatsa dagoelako, egiaztatu ondoren zuzenketara joko dugu.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.